

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2011ko azaroaren 3a. VIII. urtea. 2.301. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Musika erlijiosoa izango da protagonista Santa Klaran

Tolosan egingo den Europako Sari Nagusiaren aurretik, Orea Chamber Choir-ek eta Kea ahots taldeak kontzertu bana emango dute 03



Leonardo Garcia argentinarrek zuzenduko du Kea ahots taldea. I.GARCIA



Juan Kruz Igerabide, Maite Gurrutxaga eta Karlos Linazasorok haurrentzako bi liburu kaleratu dituzte. JON URBE-APRESS

## Haurrentzako bi liburu kaleratu dituzte eskualdeko idazleek

Adunako Juan Kruz Igerabidek 'Txori txoroa' argitaratu du, eta Tolosako Karlos Linazasorok 'Bat-batean krispetak'; bi liburuetan irudiak Amezketako Maite Gurrutxagak egin ditu 06-7

## 'Ordezko andereñoa' filma euskaraz estreinatuko dute, igandean, Leidorren

Tinko euskara elkarrekin 18 urte daramatza haurrentzako filmak euskaraz bikoizten, hizkuntzari «duintasuna» emateko 02

## Ipuin kontaketa batek emango dio hasiera gaur, Berastegiko kultur asteari

16:30etik aurrera Maite Arreseren ipuinak entzun ahal izango dira; azaroaren 13an bukatuko dira kultur ekitaldiak azoka egunarekin 05



FUNERARIA  
VASCONGADA  
EHORZKETAK

Larrea Poligonoa 34 - 1  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)



Gertu...

VILLABONAKO  
HILETA ZERBITZUAK  
BEILATOKI BULABEA

24 H..

943 694 873



'Ordezko andereñoa' igandean ikusi ahal izango da Leidorren. HITZA

## Euskarazko aisia sustatzeko asmoz, 'Ordezko andereñoa' euskaraz estreinatuko dute

Tinko euskara elkarteak sortutako egitasmoak, haurrentzako hainbat film euskaraz bikoiztea ahalbidetu du

### Itzea Urkizu

Zinea euskaraz ikusteko aukera gutxi izaten da. Tinko euskara elkarteak, ordea, 18 urte daramatza haurrentzako pelikula euskaraz bikoizten, eta igande honetan *Ordezko andereñoa* filmaren estreinaldia izango da Leidorren.

Haurrei zine zaletasuna sortzeaz haratago, «euskarari behar zaien duintasuna ematea» izan da Tinkoren helburuetako bat; haurrei aisialdia eta jarduera dibertigarriak euskaraz bizi daitezkeela helarazi nahi izan diete beraz.

Euskararen normalizatorako pauso bat, zine aretoetan haurren gustuko filmeak euskaraz proiektatzea izan zitekeela pentsatu zuten Tinko euskara taldeko kideak, eta bide horretan, 1993-1994

### Iragarki laburrak

#### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Leitzan etxebizitza salgai. Aukera ezinhobea. Lehendabiziko pisua, oso egocera onean. Bizitzera sartzeko prest. 90m<sup>2</sup>. Sukaldea, bainu-gela, hiru logela handi eta trasteleku. Ilogailua jarri berria eta berogailuarekin. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 649 20 83 10.

ikasturtean proiektuaren hastapeneko pausoak eman zituzten. Euskarazko lau film eskaini zituzten, eta horrekin batera, euskara eta bestelako baloreak uztartzen zituen material didaktikoa ere prestatu zuten. 1998. urtean, ordea, egitasmoa areto komertzialetera zabaltze aldera, Eusko Legebiltzarrean proiektua aurkeztu zuen Tinkok, diru laguntza eskatuz. Egitasmoa onartu egin zuten, eta 1999az geroztik, 35 film bikoiztu eta estreinatu ditu Tinkok.

#### Europako zinea gehienbat

Haurrentzako euskaratuko dituzten filmak aukeratzeko orduan, Tinkoko arduradunek «barkide sare zabala» dutela azaldu dute. Mundu osoan zehar ibiltzen dira haur eta gaztetxoentzako egokiak izan daitezkeen pelikulen bila. Hala ere, aukeratzeko dituzten pelikula gehienak europarrak izaten dira: «Film zoragarriak izaten dira, eta haurrek euskaraz bakarrik ikusi ahal izaten dituztenak».

Gaztetxoentzako zinema euskaraz eskaini ahal izateko, aukeraturako filmeen eskubideak erosi behar izaten ditu Tinkok, lehenik. Honen ondoren, bikoizketaren ardura euren ohi da. Behin pelikula prest dagoenean, zine areto komertzialean estre-

natzen dute pelikula, hilabete batzuk pasa ondoren, herriz herri eta eskolaz eskola filma material didaktikoarekin batera aurkezteko.

#### Euskarazko 64 film guztira

Tinkok, zortzi film proiektatzen ditu ikasturte bakoitzean. Euskal Autonomia Erkidegoan zine aretoa duten udalerriz guztiek in hitzarmen bat du Tinkok; 43 dira guztira. Modu honetara, guztira euskarazko 64 pelikula proiektatu ditu jada, eta 337 ikastetxetako ikasleak izan dira ikusleak. Azken bost urteotan, beraz, 100.000 ikusle inguru izan dituzte Tinkoren egitasmoaren bidez, euskaraz bikoiztutako pelikulek.

*Ordezko andereñoa* igandean izango da, Leidorren, 17:00etan. Seigarren mailako maistra berrriak ikasleen gurasoak engainatuta dauzka, irakaslerik onena dela sinestarazita. Ikasgelan, ordea, itxurak egiteari uzten dio andereñoak, eta gaizto baino gaiztoagoa bihurtzen da. Gainera, umei pentsamenduak irakurtzeko ahalmena du.

*Ordezko andereñoaz* gain, ostiralean *Bertsolari* izango da gazte-lerazko azpitituluekin, 22:30ean; azaroaren 7an, berriz, 20:30ean izango da. Azkenik, *Gianni y sus mujeres* igandean eskainiko dute, 19:30ean eta 22:00etan.

## Asuncionez aste honetan sinatuko du hitzarmen berria Osasun sailarekin

TOPAko kideak Jesus Mari Begiristainekin bildu ziren atzo, Donostian, auziaz hitz egiteko

### I. Urkizu

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak, aste honetan sinatuko du Asuncion klinikarekin, ospitalea eraberritzeko hitzarmen berria. Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde (TOPA) plataformako kideak Jesus Mari Begiristainekin, Osasun saileko Gipuzkoako buruarekin, bildu ziren atzo Donostian, eskualdean hika-mika sortu duen afera honi buruz hitz egiteko.

TOPA plataformako bi kide bildu ziren Begiristainekin, eta besteak beste, aste honetan Asuncionekin akordioa sinatu behar dutela eta erabakia hartuta dagoela nabarmendu zuen Begiristainek, TOPAko ordezkariek batek azaldu zuenez: «Eskualdeko osasun zerbitzuaren erabiltzaileok, hitzarmen berriarekin, irabazi egingo dugula esan digu».

Orain arte Osasun sailak eta Asuncionez sinatu izan dituzten kontzertuak bost urtekoak izan dira, baina aste honetan sinatuko dutena urte beterako akordioa

izango da. Begiristainek TOPA plataformako bi kideei azaldu zienaren arabera, «beren asmoa, une honetan Asuncion klinika eraberritu eta ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzea da». Gainera, hemendik urte batzuetara, behar bada, Asuncion ospitale publiko bilakatu daitekeela ere aipatu zien.

#### «Pribatizazioa da»

Hau, ordea, «kontua besterik ez da», TOPAren arabera: «Hau pribatizazioa da». Begiristainek berak, atzoko bileran onartu zuen hitzarmen berria nolabaiteko pribatizazioa dela, baina une honetan beste biderik ez dagoela azpimarratu zuen, eta erabiltzaileek ez dutela ezer galduko.

Plataformako kideak, ordea, ez ziren ados azaldu baieztapen honen aurrean: «Guk hori ez dela egia esan diogu, pribatizazioarekin, etekinak ateratzea helburuetako bat delako; zerbitzua emateko diru gutxiago izango dutela uste dugu».

Jesus Mari Begiristain eta TOPAko bi kideak bilduta egon ziren bitartean, Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde plataformako beste zortzi kidek elkarretaratzea egin zuten, Osasun eta Kontsumo sailak Donostian duen egoitzaren aurrean.

● tolosa@hitza.info

## Rafa Ruedak Bonberenean aurkeztuko du 'Enaren geometria'

### I. Urkizu

Rafa Rueda musikariak *Enaren geometria* izeneko disko berria argitaratu du. Lehen kontzertua Bonberenean izango da, bihar, 22:30etik aurrera. Lan berria aurkezteaz gain, Bonberenea Ekintzak zigilupean argitaratu duten *Martin Larralde* disko-liburuko kantu batzuk ere eskainiko ditu, diskoko beste parte hartzaile batzuekin batera.

Nothink talde madrildarrak, berriz, bere birako azken kontzertua eskainiko du Bonbereneako oholtzan, eta atsedenaldira bat hartuko dute gero. Larunbatean izango da, 22:30ean. Kontzertua grabatu egingo dute, DVD baterako.

● tolosa@hitza.info

## → Laburrak

### 'Argi-itzalen neurria' liburua irakurle txokoa

**KULTURA** ▶ Galtzaundi Euskara Taldeak antolatzen duen irakurle taldearen saioa izango da gaur, 20:00etan, Antonio Maria Labaien Kultur Etxean. Irakurri beharreko liburua Xabier Artola Zubillaga alkizarraren *Argi-itzalen neurria* da.

### Babarrun jaterako txartelak salgai

**GASTRONOMIA** ▶ Datorren asteburuan ospatuko da Tolosan, Babarrunen astea. Lehiaketa gastronomikoari dagokionez, Gure Kaiola elkarrekin 25 urte daramatza berau antolatzen. Azaroaren 20an, lehiaketaren ondoren Zerkausian izango den bazkarirako txartelak Gure Kaiolan eskuragarri daude, 19:00etatik 21:00etara, edo ordu horretan 607 67 27 09ra deituta.

**KEY-LAN**  
Sarrailgintza

Nafarroa iturb. 13 beheza - TOLUSA  
Mug.: 670 41 79 22  
Tel./Fax: 943 65 03 13

**HARATEGIA SALGAI AZPEITIAN**

Lotele bidean dago eta 90m<sup>2</sup> ditu  
Informazio gehiagorako:  
635 746 321

## Udalaren proiektuak «galerak» izango dituela diote

Larramendiko errepidea lurperatzearen alde batek bere iritzia plazaratu du udaletxean egindako batzarraren ondoren. Auzokide hauek dioteenez, udalak proposatu nahi duen proiektuak bi galera ditu: «Orain dugun proiektua baino gutxiago izango litzateke, eta diru eta, batez ere, denbora galera suposatuko luke».

**I. Garcia** Tolosa

Larramendi errepidea lurperatzearen alde dagoen bizilagun talde batek bere iritzia plazaratu du udaletxean egindako batzarraren ondoren. Auzokide hauek dioteenez, udalak proposatu nahi duen proiektuak bi galera ditu: «Orain dugun proiektua baino gutxiago izango litzateke, eta diru eta, batez ere, denbora galera suposatuko luke».

Zehazki, auzokideek azaldu dutenez, «gure auzoarentzat eskainiko diren ekipamenduek galera handia izango dute, beti ere bigarren aukera horretan Amenabarrak etxe batzuk eraikitze eskubidea galtzeagatik, diru batekin konpentsatu beharko baita». Bigarren «galerari» dagokionez, udalaren proposamenak «proiektu berri baten garapena» eskatuko lukeela diote. «Proiektuaren erredakzioa, alegazioak... Ondoren, osoko bilkuratik pasa beharko luke, gero Aldunditik...».

Auzokideek dagoeneko onartuta dagoen proiektu bat dagoela

berresten dute. Horrek etxebizitzaren erosleekin konpromiso batzuk dituela erantsi dute. Horen aurrean hainbat galdera egiten dituzte: «Nork sortu du hikamika hau? Zein bizilagun taldek/elkartek eskatu du eztabaida hau? Zergatik sortzen zaigu zailtza hau dagoeneko onartuta dagoen proiektu baten inguruan?».

Etorkizuneko proiektuetarako galdeketa sistemetan sinesten dutela diote, «beti ere ez badituzte bere gain hartzen betebeharreko konpromisoak». Hori ez dela Voith-Gorostidiren kasua esan dute: «Gure etxeen prezioek karga urbanistikoak dituzte bere gain, eta horien barme errepidearen lurperatzea dago, beraz, nork du gure diruarekin zer egingo den erabakitze eskubidea?».

Lurperatzeak «onurak» eskaintzen dituela diote bizilagun hauek: «Bizi kalitatea, irigarritasuna eta, batez ere, segurtasuna». Lanean jarraitzen dutela diote, «gure eskubide bat defendatze ko», eta laster bilera orokor baterako deialdia luzatuko dutela esan dute, «gure argudioak azaltzeko». Bestalde, jarduera horretan lagundu nahi duen edonori eskua luzatzen diotela adierazi dute, eta harremanetarako [larramendiauzoa@hotmail.com](mailto:larramendiauzoa@hotmail.com) helbidea utzi dute.

## Santa Klaran jarraituko dute abesbatza musika saioek



Kea ahotsa taldea, atzo, Topic-en Leonardo Garciaekin egindako entseguan. I. GARCIA

Musika erlijiosoa izango da ardatza Orea Chamber Choir-en eta Kea ahots taldearen kontzertuetan

**Imanol Garcia** Tolosa

Tolosako Abesbatza Lehiaketa amaituta, eta Europako Sari Nagusiaren esperoan, koru musikaz gozatu nahi dutenek bi aukera dituzte, biak Santa Klara komentuan. Protagonistak ez dira nolana hikoak izango. Gaur, 19:30ean, Orea Chamber Choir abesbatzak emango du kontzertua. Bihar, ordu berdinean, Kea ahots taldearen txanda izango da.

Sari nagusia irabazi duen Orea Chamber Choir koruak musika erlijiosoa eskainiko du. Lehenengo zatian, musika ortodoxoa abestuko dute, batez ere Errusiar eta Ukrainakoak. Bigarren zatian, hainbat garaietako mendealdeko musika erlijiosoa eskainiko dute.

**Zuzendari berezia**

Kea ahots taldearentzat kontzertu berezia izango da, zuzendari lanetan Leonardo Garcia argentinarrak ariko baita. Bi zati izango ditu kontzertu horrek. Lehenengoan XVI. mendeko Tomas Luis de Victoriaren lanak abestuko dira eta bestean XVIII. mendeko Giovanni Giorgirenak. Emanaldian, obra horiei «interpretazio

berri bat, argi berri bat» eman nahi diotela esan du Garcia. «Berpizkundeko eta Barrokoko musika erlijiosoa interpreteen nortasunik gabe abestu izan dira. Garai horietako margolanek ziztuzten koloreak musikari berrir ematea garrantzitsua da, mendeetan zehar galdu baititugu».

Kea ahots taldearekin lehen aldiz egiten ari da lan. «Oso ahots emankorrak eta malguak dituzte la iruditzen zait, musika honen materia lantzeko modukoak», dio zuzendariak. «Oso gustura nago hemen, hain justu, nire arbasoek Tolosa herriarekin harremana dutelako». Bestalde, abesbatza musikaren munduan Tolosak duen garrantzia nabarmendu du zuzendari argentinarrak.

## Enpresen lizentzien inguruko programa abian jarriko dute

Enpresen irekiera eta jardueraren lizentziak erregularitzatzeko eta lortzeko laguntza ematea da helburua

**I. Garcia**

Tolosaldea Garatzenek, Ihoberkin elkarlanean, enpresen irekiera eta jardueraren lizentziak erregularizatzen eta lortzen laguntzeko doako programa bat jarri du martxan. Programak bi fase izango ditu. Lehenengoan, aholkulari baten laguntzarekin, parte hartzen duten enpresen autodiagnostiko egingo dute, ikusketo zein den legeak eskatzen di-

tuen betekizunekin alderatuz, norberak duen egoera. Honetarako Legescan metodologia erabiliko dute.

Autodiagnostiko hau egiteko, parte hartzaileek hiru jardunaldi erabiliko dituzte, bakoitza hiru ordukoa. Hilaren 8an, 15an eta 22an izango da, Tolosaldea Institutuan, eta 09:30etan hasiko dira.

Lehenengo fasean osatutako autodiagnostikoak erakutsiko duen jardueraren plana burutzeko asmoa daukaten enpresentzat jarriko da martxan bigarren fasea.

Ekimen horretan parte hartzeko beharrezkoa da aurretik izena ematea. Argibide gehiago eskatzeko, [enpresa@tolosaldea.net](mailto:enpresa@tolosaldea.net) helbidera idatzi edo 943 65 45 01 zenbakira deitu daiteke.

## Euskal Herriko frisoi arrazako behi onenak Ferialekuan lehiatuko dira

Maila horretako hirugarren txapelketa antolatu dute larunbaterako; 10:15ean hasiko da lehiaketa


**I. Garcia** Tolosa

III. Euskal Herriko Frisoi Txapelketa antolatu dute, larunbaterako, Tolosako Ferialekuan. Lehenengo edizioan bezala, txapelketan Hegoaldeko ustialekuek parte hartuko dute eta hobekuntza genetikoaren eta ganaduzaleen eguneroko lanaren bidez egin diren lorpenak ezagutzera emango dira, antolatzaileek azaldu dutenez. Lehiaketa 10:15ean hasiko da eta guztira zortzi atal izango dira. 13:00ak aldera emango da sari na-

gusia. Bestalde, azoka eremuan sektoreko enpresen postuak ere egongo dira beraien produktuen eta zerbitzuen berri ematen.

Ganaduzaleen helburu garrantzitsua kalitatezko esnea ekoiz-

tea dela azaldu dute ekimenaren bultzatzaileek. Horregatik, iaz bezala, «behi esnea kontsumitzeak dituen onurei buruz» hitzaldia antolatu dute. Hilaren 10ean izango da, 19:00etan, udaletxean.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Oroimen historikoaren inguruko hitzaldia eta ekitaldia antolatu dituzte

Francisco Etxeberria Atxulondon egongo da gaur, eta igandean hilerrian monolitoa jarriko dute

Asier Imaz Zizurkil

Frankismoa Zizurkilera iritsi zela 75 urte bete ziren 2011ko abuztuaren 16an. Hori dela eta, Teodoro Hernandezena taldeak emango du hitzaldia, Atxulondo kultur etxean, 19:30ean. Teodoro Hernandezena taldeko kideek, eskualdeko herritar guztiak gonbidatu dituzte hitzaldira. Horrez gain, igandean ospatuko den ekimena azpimarratu nahi izan dute. Hilaren 6an, Zizurkilgo hilerrian, gerra zibilak eta frankismoak eraildako herritarrek gogoratuko dituzte. Errepresaliatuei omenaldia egingo diote, eta monolito bat jarriko dute hilerrian oroigarri gisa. Ekitaldi honetara jendea gerturatzea oso garrantzitsua dela azaldu dute.

Justizia eta erreparazioa izan zuen hizpide.

Gaur Francisco Etxeberriak emango du hitzaldia, Atxulondo kultur etxean, 19:30ean. Teodoro Hernandezena taldeko kideek, eskualdeko herritar guztiak gonbidatu dituzte hitzaldira. Horrez gain, igandean ospatuko den ekimena azpimarratu nahi izan dute. Hilaren 6an, Zizurkilgo hilerrian, gerra zibilak eta frankismoak eraildako herritarrek gogoratuko dituzte. Errepresaliatuei omenaldia egingo diote, eta monolito bat jarriko dute hilerrian oroigarri gisa. Ekitaldi honetara jendea gerturatzea oso garrantzitsua dela azaldu dute.

## ↓ Egitaraua

### AZAROAK 3, GAUR

■ 19:30ean. Atxulondo kultur etxean Francisco Etxeberria Gabilondoren hitzaldia: *Exhuminando fosas... recuperando la dignidad*.

### AZAROAK 6, IGANDEA

■ 12:00etan. Herriko hilerrian monolito bat jarriko da gerra zibilean fusilatutako eta frankismoaren errepresailak jasan zituzten herritarren omenez.

# Amasako jaiak ospatzen etzi hasiko dira

A. Imaz Amasa-Villabona

Txupinazioa hilaren 9an botako baldin badute ere, Amasako Santmartinak ospatzen etzi, hilaren 5ean, hasiko dira. 20:30ean mondejo afaria egingo dute amasa-

rrek, Uxo-Toki elkartearen. Ondoren, asteazkenera arte atsedendia hartuko dute. Gazteen eguna hilaren 10ean izango da, San Martin egunaren bezperan. Jaietako egitaraua azaroaren 20ean amaituko da.

## ↓ Egitaraua

### AZAROAK 5, ETZI

■ 20:30ean. Mondejo afaria Uxo-Toki elkartearen.

### AZAROAK 9, ASTEAZKENA

■ 19:00etan. Txupinazioa eta Martina Sorginaren jaitsiera.

### AZAROAK 10, OSTEGUNA

- 06:00etan. Gazteen gosaria Ongi Etorri tabernan, trikitilari eta dultzaineroek alaituta.
- 14:30ean. Gazteen bazkaria Uxo-Toki elkartearen.
- 16:30ean. Sokadantza eta aurrekua plazan.
- Ondoren. Trikitilarien erromeria.
- 21:00etan. Gazteen afaria Iturri-goxo jatetxean.

### HILAK 11, OSTIRALA

- 10:30ean. Meza nagusia.
- 12:00etan. Idi demak Joxe Munduate eta Iñigo Gorostarzu bertsolariak, eta trikitilariak alaiturik.
- 17:30ean. *Irrien lagunekin kanta eta dantza* pailazoan emanaldia.
- Ondoren. Txokolate beroa.
- 20:00etan. Amasako XX. Baskillo Lehiaketa frontoian.
- Ondoren. Mozorro gaua: mo-zorrerik onenarentzat saria egongo da.
- 23:30ean. Dantzaldia Laiotz taldearekin.
- 02:00etan. Mozorrerik onenaren sari banaketa.

### AZAROAK 12, LARUNBATA

- 11:00etan. Ume krosa, 6. maila arteko urmeentzat.
- 12:30ean. Giza proba: Amasako gazteak Zizurkilgo gazteen aurka.
- 14:00etan. Herri bazkaria egingo dute.
- 18:30ean. Onintza Agirre organo-jolearen eta Naroa Ene-kotegi abeslariaren kontzertua elizan.
- 22:30ean. Bertso saioa: Andoni Egaña, Jexux Mari Irazu, Ander Lizarralde eta Beñat Iguaran. Gai jartzalea: Amaia Agirre.
- Ondoren. Zea Mays taldearen kontzertua. Jarraian, Ingo al deu? taldearekin dantzaldia.

### AZAROAK 13, IGANDEA

- 11:30ean. Ume jolasak frontoian eta euskal astoekin paseoa inbiltzeko aukera egongo da.
- 18:00etan. Herri kirolak herriko gazteen eskutik.
- Ondoren. Martina Sorginaren agurra su artifizialek lagundurik. Jarraian, XXII. Intxorren alde-tzea.

### AZAROAK 19, LARUNBATA

- 10:00etan. I. Amasako Azoka Berezia.

### AZAROAK 20, IGANDEA

- 11:00etan. Euskal Herriko I. Mendiduatlo zirkuitua.

# Karlos Besancek torturak jasan zituela esan dio epaileari

Erredakzioa

Atzo izan zuen jarraipena Leaburuko Andoni Otegi eta Villabonako Oskar Zelarain eta Karlos Besaceren epaiketa. 2001ean Leitzako Jose Javier Mujika zinegotzia hiltzea leporatzen diete. Mujikaren alargunaren deklarazioarekin hasi zen epaiketa. Zelarain eta Otegi, bere aldetik, uko egin zioten epaiketan parte hartzeari, eta beraien kontrako akusazioak Goardia Zibilak Besance torturatu ostean lortutakoak direla salatu zuen. Besancek defentsaren galderak erantzun zituen, eta esan zuen torturengatik onartu zuela ekintzan parte hartu izana.

Epaiketak gaur eta bihar jarraituko du. Fiskalak 48 urteko espetxe zigorra eskatzen du Otegi, Besance eta Txapoterentzat, eta 38 urte Otegiarentzat.

## Irudia Amasa-Villabona



# AHOZKOA ETA IDATZIA

Mintzolak antolatutako *Ahoa bete* hotz jardunaldiak atzo hasi ziren. Lehen hitzaldia Luis Mari Larrigan eta Arantza Ozaetak eman zuten: *Ahokoia eta idatzia, bi kultura. Zertan elkarren oztopo, zertan elkarren aberasbide*. Bi hizlariarekin batera, Mintzolako Inaxio Ugarralde egon zen mahaian. Ahokoaren eta idatzizkoaren arteko mugak markatuko dituzte jardunaldi hauetan. Hiru jardunaldiren ondoren, bihar amaituko dira. A.I.



HITZAK harpidedunentzat **3 sarrera pare** ditu

**Ordezko Andereñoa**  
filma

Azaroak 6 • Igandea • 17:00etan Tolosako Leidorren

HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pare** du

**LAGUN ARO GBC**  
Valencia Basket

saskibalo partida

Azaroak 6 • Igandea  
18:00etan  
Donostiako Ilunben



Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira

## Eskualdeko pilotariak emaitza onak lortu dituzte

Ikaztegieta, Alton eta Alegian jokatuak dituzte partidak asteburu honetan, maila guztietan

### Erredakzioa Pilota

Iragan asteburuan jokaturiko pilota partidek emaitza onak utzi dituzte eskualdeko pilotarietaz. Asteburu honi dagokionez, partidaz beterikoa izango da, ohi-legez.

Hala, nabarmentzekoa Alegian jokatuak diren nagusien lehenengo mailako hiru partida. Aurrera Saiaz 2 eta Usurbil izango dira nor baino nor, 19:30ean hasita. Aurrerarekin Iñaki Artola eta Galarragak osaturiko bikotea ariko da, eta aurkariak bikoia Santxo eta Urruzolak osatuko dute.

### Biharko partidak

Asteburuko gainerako partidei dagokionez, bihar Ikaztegieta, Gipuzkoako ezker hormako txapelketako hiru partida jokatu dira 19:00etan hasita: Intxurre - Gazteleku; Intxurre - Zazpi Iturri; eta Intxurre - Bergara. Alegian ere txapelketa bereko bi partida izango dira ikusgai, 19:30ean: Intxurre - Antigua; eta Intxurre - Aurrera Saiaz 2.

### Larunbata eta igandeak

Etzi, bestalde, eskuz banakako partidak hartuko ditu Altzok 16:00etatik aurrera: Intxurre 2 - Atxurbide 2; Intxurre 1 - Aniztasuna 3; Intxurre 3 - Lapke 1; Intxurre 2 - Txapagain 1; eta Intxurre 1 - Lapke 6.

Igandean, eskuz banakako eta ezker hormako ondorengo partidak jokatuak dituzte: Atau - Intxurre 2; Aurrera Saiaz - Intxurre 3; Lapke 2 - Intxurre 4; Aniztasuna 1 - Intxurre 5; Su-Berri 1 - Intxurre 1; Zazpi Iturri 2 - Intxurre 4; Zazpi Iturri 3 - Intxurre 5; Zazpi Iturri 1 - Intxurre 1; Ziotza 1 - Intxurre 7; eta Ziotza 3 - Intxurre 6.

### ↓ Emaitzak

Eskoriatza - Intxurre	11-22
Aurrera Saiaz 2 - Intxurre	22-12
EPELEZ - Intxurre 2	22-7
Eibar - Intxurre 2	8-22
Intxurre 2 - Aniztasuna 1	2-0
Intxurre 2 - Gailurrerantz	2-1
Intxurre 4 - Intxurre 7	0-2
Intxurre 3 - Zazpi Iturri 2	2-0
Intxurre 2 - Zazpi Iturri 3	2-0
Intxurre 1 - Ziotza 3	2-0
Mundarra - Intxurre	6-22
Murumendi - Intxurre 1	9-22

# Gaur hasiko den kultur astea hilaren 13ko azoka egunarekin amaituko da

Lehiaketa ugari hartuko ditu azoka bereziak, narbarmentzekoa, gaztarena; askotariko ekitaldiak izango dira

### Iñigo Terradillos Berastegi

Urteko sasoi honetan ohikoa den moduan, kultur ekitaldiak betetako astea irabazteko diote Berastegin. Hain zuzen ere, gaur hasiko dira kultur astearekin, eta azaroaren 13ra arte iraungo du. Tartean adin guztiei zuzendutako ekimenak izango dira, eta horietan «pisurik handiena» hilaren 13an egingo duten azoka bereziak izango du.

Herriko produktuak izango dira ikusgai eta eskuragai azoka egunean. Izan ere, herriko base-rritarrek euren barazkiak, gaztak, eztiak, eskulanak, animaliak... aterako dituzte. Horrez gain, hainbat lehiaketa hartuko ditu azokak, gaztarena, postuea, argazkiena, ardi, ahari eta bildotsena eta baratzeena. Lehena, gaztarena, da nabarmendu beharrekoa, 20 urtez etenik gabe egin delako. Udaletik herritar oro animatu dute lehiaketetan parte hartzera, azken eguna azaroaren 10a delarik.

### Larunbata ere, «egun handia»

Azoka egunaz gain, datorren larunbata, hilaren 5eko egitaraua ere aipamarratu nahi izan dute udaletik. «Izan ere, arroz esne lehiaketa egingo dugu hirugarren urtez, gaztain erretzea, eta bertso saio polita izango da, herriko Iñigo Gorostazu bertsolaria-ekin». Arroz esne lehiaketari dagokionez, parte hartu nahi dutenek bihar izango dute izena emateko azken eguna. 943 68 30 00 telefono zenbakira deituz edota [kultura@berastegi.com](mailto:kultura@berastegi.com) helbidera idatziz egin ahaliko da.

Bestalde, aipatzekoa da, baita ere, kultur asteak irauten duen bitartean argazki rallyko argazkiak ikusgai izango direla aparkaleku azpiko lokalean. Halaber, Berastegiko Udalaren web orrian ([www.berastegi.org](http://www.berastegi.org)) ere izango dira ikusgai parte-hartzaile bakoitzak aukeraturiko hiru argazkirik onenak.

### Txikienentzako ekitaldiak ere

Helduei ez ezik, etxeko txikienei eskaintako ekitaldiak ere izango dira kultur astean, hala nola, ipuin kontaketak, jolasak, pailazoaren emanaldiak edota ikus-entzunezkoak.

Udalak herritar oro animatzen du kultur ekitaldien aitzakian herritarrek elkartzera.



Azaroaren 13an izango da urte honetako Azoka Eguna. Urtero bezala, izango da zer ikusia Berastegin. ILL

### ↓ Egitaraua

#### AZAROAK 3, GAUR

- **16:30.** Ipuin kontaketa saioa, Maite Arreseren eskutik, aparkaleku azpiko lokalean.
- **21:00.** *Tolosaldea osasun publikoaren alde*, TOPAri buruzko hitzaldia, aparkaleku azpiko lokalean.

#### AZAROAK 4, BIHAR

- **16:30.** Kulkiren eskutik herri-jolasak eta kirolak haurrentzat, meatzaritzaren inguruan, eskola atarian.
- **21:30.** *Nafarroako Erresumaren konkista: 500 urte* hitzaldia Bixente Serrano Izkoren eskutik, J.A. Muñagorri eskolako ganbaran.

#### AZAROAK 5, ETZI

- **16:00.** Gazteen III. Duetloia, frontoian.
- **17:00.** III. Arroz-esne lehiaketa, aparkaleku azpiko lokalean.
- **18:30.** Gaztaina erretzea, frontoian.
- **Ondoren.** Afari-merienda eta arroz-esne dastaketa frontoian. Bertan, Arroz-esne lehiaketako sariak banatuko dira.
- **22:30.** Bertso saioa aparkaleku azpiko lokalean: Iñigo Gorostazu, Beñat Iguaran, Jexux Mari Irazu, Aitzol Barandiaran eta Unai Agirre. Gai-jartzaile: Unai Elizasu.

#### AZAROAK 6, IGANDEA

- **16:30.** Tatxin eta tatxan pailazoaren emanaldia, frontoian.
- **Ondoren.** Txokolatea.
- **19:30.** Musika-emanaldia, aparkaleku azpiko lokalean.

#### AZAROAK 8, ASTEARTEA

- **19:00.** Kiropraktikari buruzko hitzaldia Michel Marmier-en eskutik, eskolako ganbaran.

#### AZAROAK 10, OSTEGUNA

- **21:00.** Gaur egungo egoera ekonomikoari buruzko hitzaldia Joseba Barandiaranen eskutik, aparkaleku azpiko lokalean.

#### AZAROAK 11, OSTIRALA

- **16:30.** DVD emanaldia haurrentzat, aparkaleku azpiko lokalean.
- **21:30.** *Zelanda Berria bizikletaz familia giroan* ikus-entzunezkoak, eskolako ganbaran.

#### AZAROAK 12, LARUNBATA

- **15:30.** Mus-txapelketa herrikoia Basurde Elkartearen.
- **16:30.** Teleipuina haurrentzat aparkaleku azpiko lokalean.
- **Ondoren.** Askaria.
- **19:00.** *Islandia: suzko eta izotzezko lurraldea* bizikletaz ikus-

entzunezkoak Mikel Castroren eta Mikel Otegiaren eskutik, aparkaleku azpiko lokalean.

- **22:30.** *Estresa* antzezlan, Leitzako antzerki-taldearen eskutik, frontoian.

#### AZAROAK 13, IGANDEA

- **Goizean.** Azoka Eguna. Herriko produktuak eskuragai: barazki, gazta, ezti, eskulanak...
- **13:00.** Gazta Lehiaketa, Ahari, Ardi eta Bildots Lehiaketa, Postu Lehiaketa, Argazki Lehiaketa, eta Baratze Lehiaketako sari-banaketa.
- **18:00.** Talo jatea, goizean lehiaketan parte hartutako gaztak dastatuz, ardo eta sagardoren laguntzarekin.



Lehiaketarako baratze bat. HITZA





Karlos Linazasoro (erdian) eta Juan Kruz Igerabide (eskubian) haurrentzako liburu bana argitaratu berri dituzte, bietan Maite Gurrutxagak (ezkerrean) egin ditu ilustrazioak. A.G.

# Gurrutxaga, Linazasoro eta Igerabide irakurlea bereganatzeko prest

‘Txori txoroa’ liburuan Adunako Juan Kruz Igerabidek dugun horretatik dena emateak duen garrantziaz hitz egiten duela dio

Karlos Linazasorok ‘Bat-batean krispetak’ lanean haurrentzako idatzi du

## Arantza Goikoetxeandia

Orain gutxi gazte literaturako bi liburu aurkeztu dituzte eskualdeko bi idazlek; Tolosako Karlos Linazasorok *Bat-batean krispetak* argitaratu du eta Adunako Juan

Kruz Igerabidek *Txori txoroa* liburua. Bi hauen liburuetako irudiak Maite Gurrutxaga irudigile amezketarrak egin ditu.

Alberdania argitaletxearen eskutik argitaratutako gazteentzako liburu hauek erabat desberdi-

nak dira. Igerabideren liburuan txori marginatu baten bizitza kontatzen da; moko okerrarekin jaiotzen da txoria eta familiakoek baztertu egiten dute. Gertakari hau abiapuntu hartuta beraren garapen abentura bat kontatzen da liburuan. Familiatik alde egingo du eta bere bidea topatuko du, bere ezintasunari etekina ateraz. «Ezintasun batekin hiltzera kondenatua dagoen txori batek, kasualitate baten ondorioz, pixkana bere gabeziei etekina ateratzen ikasten du», dio Igerabidek.

*Bat-batean krispetak*, ordea, oso liburu ezberdina da. Atalka

egindako liburu honetan poema txiki laburrak, esaldiak, aforismak eta hitz jolasak landu ditu egileak lehenengo partean, eta bigarrenean ipuin bat kontatzen du; honek badu mezu argia eta kritikarik ere ez da falta bertan. «Testuak pentsatzeko aukera ematen du, ez da bakarrik umorea», dio Linazasorok.

Irudigilea, Gurrutxaga, oso pozik gelditu da egindako lanarekin: *Txori txoroa* ipuineko marrazkiak arkatza, boligrafoa eta tintazko tanpoekin egin ditu. «Basoa sortzen ikaragarri disfrutatut dut, baina gehiago kostatu

zait txoriei bizia ematea eta irudi poetiko bat sortzea; liburuak horixe eskatzen baitu», dio.

Liburu honetan nahiz bestean Gurrutxagaren gidariak liburuak beraiek izan dira, haiek emandako lekura joan da irudigilea. *Bat-batean krispetak* liburuan, hasieran blokeo bat ere izan omen zuen; liburua goxoki bat zela konturatu zen arte. Orduantxe ikusi zituen mila aukera eta horrela ekin zion atal bakoitza lotuko zuen irudia egiteari, baina beti ere, ezer definitu gabe, testuak irudimenerako leku asko baitu.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Juan Kruz Igerabide • Idazlea

## «Askotan gurasoek haurra zerbait egitera behartzen dute»

A.G.

Okil baten istorioa kontatu du Juan Kruz Igerabidek (Aduna, 1956). Moko okerra du eta familiarak arbuaitu egiten du ezin duelako zurgintzan lan egin. Bere akatsari etekina ateratzen dio, ordea, eskulturagile bihurturik. Abenturaz abentura joango da bere burua ezagutzen, eta aurreiritziak baztertzeko.

**Txoriari jaito aurretik batera jotzaile izatea eskatzen zitzaien. Gaur egungo gaztetxoek ere ez al zaie gehiegi eskatzen askotan?**

Bai, gaur egun oso nabarmena da hori. Gurasoek haurra zerbait egi behartzen dute askotan; bide jakin batzuk markatzen dizkie eta markatutako hori ez badute jarraitzen haurrak porrota dira hauentzat, liburuan gertatzen den bezala. Jakina, liburu honetan horren kritika bat dago.

**Aitak eta amak txoria moko okerra zela ikustean, beraien alabak ezertarako ez zuela balio esan zuten; zein guraso krudelak, ezta?**

Okilak, berez, txorien artean hotzenetakoa dira beren emeekin. Hemen ez dut jarri, baina hori gizakion artera ekarri gero, maitasuna adierazteko modu bat urrutzea da: batzuetan paretik kentzea maitasuna adierazteko modu bat da. Horrela irakurtzea



HITZA

ere nahi nuke. Kuriosoa da, benetakoa baita hori okilen artean, oso hotzak baitira.

**Txoriak zituen gabezia horiei zukurik hoberena ateratzen ikasi du. Horixe ote da bizitzaren giltzarria?**

Bai, nolabait ere. Gaur egun garrantzi handia ematen diote psikologoek erresilientzia hitzari. Hau da garrantzi handia du pertsonak den bezalakoa izanda eman dezakeen hoberena, den horrekin, ateratzea. Hori da liburu honen barruko mezua: txoriak moko okerrarekin eskultura ederrek egiten ditu, baina ezin du mahai bat zuzen egin. Kulunka

egiten duen mahai bat gustatzen zaionarentzat, ordea, txoriaren lana paregabea da. Txoriari urretxindorrak laguntzen dio eta lagun onak egiten dira; honek ordea, bere ondotik alde egiteko arazorik ez du maitemintzen deanean. Ihesaldi honek indarberri tu egiten du okila bizitzen jarraitzeko; hortxe dago koxka. Izan ere, askotan ez dakigu babesaren, uztearen, laguntzearen edo oztapatzearen arteko mugak non dagoen eta horrek norberak duen hoberena ateratze horretan oztapatu dezake.

**Ez al duzu pentsatu 'facebook'en txori txoroaren perfilik egitea? Lagun asko izango ditu!**

Txori hau gogorra da, aurrera egiten dakiena, baina bere inozotasun guztiarekin. Depresiorako ezintasun bat baleuka bezala da, bizipoza duelako barnean.

**Maite Gurrutxaga amezketarrak ilustratu du liburua, gustura al zaudete emaitzarekin?**

Oso gustura. *Berria* egunkari-rako elkartu ginen eta niretzako sorpresa bat izan zen. Tarte horretan ezagutu nuen berak ilustratutako Karlosen (Linazasoro) liburu bat, eta asko gustatu zitzaidan. Lehenagotik ere kontaktuan nengoen berarekin, anaiaren bidez. Bai, dudarik gabe asmatu dugu.

Karlos Linazasoro • Idazlea

## «Lana sorpresa kutxa bat bezala da»

A.G.

Karlos Linazasororen (Tolosa, 1962) *Bat-batean krispetak* liburua ezberdina da. Olerki, afarismo eta koplekin batera ipuin luze bat ere badu: *Gartzeain*.

**Ipuina bi zatitan banatu duzu. Ba al dago loturarik bien artean?**

Ez, ez dago loturarik, liburua sorpresa kutxa bat bezala da eta bertan genero desberdinak lantzen dira. Baliteke batasun bat egotea erabili dudan tonuan, bestalde gai bakoitzari buelta umoristikoa ematen zaio eta hori ere oso egituratua dago. Baina ni ez naiz horrenbeste jabetzen, inkonziiente-ak egiten du. Bederen, argi dagoena zera da, ipuina eta aurreko zatia idazle berak idatzi dituela.

**Haurrek zine gehiegi eta errealtate gutxiegi ikusten ote dute?**

Zine gehiegi? Ez dakit. Nik uste dut fantasia asko dagoela; zinera joaten zarenean mundu fantastiko batean murgiltzen zara eta ea zer gertatzen den! Ez nintzen hortaz jabetu, baina izan liteke. Umeek ez dute aurreiritzirik, kanpoan dena utzi dezakete.

**Liburuko 'Gartzeain' ipuinean zeu ekologista agerikoa da. Gazteek helarazi beharke al da zure ustez?**

Denei esan behar zaie lurra zaindu egin behar dela. Jendeak lur-rrarekin nola jokatzeko duen ere



HITZA

kontutan hartu behar da: zenbat diru, zenbak gauza egin diren gure lurra kontuan hartu gabe... Badago mezu hori.

**Zure irakurle gaztetxo sutsu batek 'Gartzeain' non dagoen galdetuko balizu, zer erantzun zenuke?**

Hemendik gertu, edozein lekutan; *ciudad de vacaciones* horietako bat edozein lekutan horietatik dezaiteke. Hementxe, bai, hemendik hurbil. Ipuinaren abiapuntua ere hemendik hurbil dago; lapurretak hementxe bertan gertatu ziren. Hori pixka bat muturreraino eramanda, kobrezko haria lapurtzen hasten zara eta zure amari lapurtzen bukatzen duzu...

**Bigarren aldia da Maite Gurrutxagarekin liburua argitaratzen duzula. Hirugarrenik ere izango ote da?**

Bai, bai, maiatza aldera Mantangorri-ekin lan egingo dut eta berak, nahi badu behintzat, ere bai.

Maite Gurrutxaga • Irudigilea

## «Puntua bilatzen saiatu naiz eta gustura gelditu naiz lortutakoarekin»

A.G.

Maite Gurrutxagak (Amezketeta, 1983) lan ugari egin ditu irudigile bezala. Linazasoro eta Igerabide-ren azken liburuez gain, bere anaia Mikelek idatzitako *Alex, nire laguna* ilustratu zuen, 2009ko Etxepare Saria ere irabazi zutelarik liburu honengatik. Era berean, Kerobia taldeko *Ontziak* diskoko ilustrazioak ere egin ditu Gurrutxagak.

**Karlos Linazasororekin bigarren aldiz eta Juan Kruz Igerabidearekin lehengoz aritu zara lanean. Nolako izan da esperientzia?**

Ona, izan ere, niretzat garrantzitsua da idazlearen tonua nik irudiek bilatzea. Gustatzen zait, baita ere, halako pautak gehiegi ez ematea lanerako, bakoitzak bere filtroa baitu eta lanak hortik pasa

behar baitu. Alde horretatik erabat libre izan naiz, editorialak ere askatasuna eman dit. Beraien lana ere gustatu zait; sartu naiz, lortu dut lanetan sartzea, baita konzentratzea ere. Puntua bilatzen saiatu naiz eta gustura gelditu naiz lortutakoarekin.

**Zein izan dira, bi lanak esku artean izan dituzunetik, emandako pausak?**

*Txori txoroa* liburuarekin denbora gehiago izan dut, *Berria* egunkarian atalka agertu baitzen liburuen erdia. Gero liburua egitera pasatzean aurreko prozesutik abiatutik puntua bilatzen saiatu nintzen. Behin bide bat hartzen duzunean hortik jarraitu beharra daukazu; gero irudi on batzuk egiten saiatu naiz eta txoriei bizia ematen. Ipuinak duen poesia guzti hori irudi bidez ateratzen saiatu



HITZA

naiz haritik tiraka joanez. *Bat-batean krispetak* udan egindako lana izan da; txuri beltzeko lan bat izan behar zela nekien eta hortik abiatu nintzen. Hasieran asko pentsatu nuen, buruari buelta asko eman nizkion; bi aste pasatu nuen pentsatzen bakarrik, ohar txiki batzuk hartuz. Gero, noski, bukatzeko data ate joka zeterrela ikustean buruz markatuta nuenetik bidea bilatu nuen eta hortik etorri zen haria. Hau dena pasatzea beharrezkoa izaten dut, ni gustora senti nadin. Eta hori noski, niretzat garrantzitsua da.

**Alberdania argitaletxearekin bultzatuko bat ematera etorri zarete, uste duzu lortu duzuela?**

Niri erantzuna ikaragarri gustatu zait bietan, orain ikusi egin behar ko da. Argitaletxea helduentzako literaturan zentratuagoa omen

zegoen eta horregatik behar zuen bultzatutako bat haur literaturan. Aukeratutako idazleekin nahikoa arrazoi badago bultzatutako emateko. Ni aukeratu izana apostu bat izan daiteke, baina horrelako bi idazlerekin emaitza onak aseguratuak daude.

**Zer egingo luke ilustratzaileak idazlerik gabe? Idazleak, ordea, behar ote du ilustratzailearekin?**

Niretzat irudia sekula ez dago soberan. Ilustrazioa, pintura, edo argazkia, berdin du. Nirea ilustrazioa da eta egokiena bera dela iruditzen zait. Ilustratzaileak ez dakit zer egingo lukeen idazlerik gabe; ni beti tiraka ibiltzen naiz ezagutzen ditudan gazteiei. Gustatuko litzaidake idaztea baina nire marraztea da.

**Ba al duzu burutik kendu ezin duzun idazlerik?**

Ez naiz saiatzen, iritsi behar duenean iritsiko da. Oraingoiz ibiltzen dut eta zortedun sentitzen naiz. Nire anaiarekin ere ibiltzen naiz lanean; jakina oso gertukoak gara eta elkar ulertzen saiatzen gara. Oso gustura nago, orain arte lan egin dudana idazleekin.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzalde:** 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,  
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernalde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

**Irudia** Altzo



**Agenda**

**DEIALDIAK**

- **Tolosaldea.** 43. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketako sari nagusia eskuratu duen Ukrainako Oreya abesbatzaren emanaldia gaur, 19:30ean, Santa Klara elizan.
- **Berastegi.** TOPAk hitzaldia eskainiko du gaur, 21:00etan, aparkaleku azpiko lokalean.
- **Zizurkil.** Oroimen historikoa, Zizurkil 1936-2011 egitasmoaren barruan, gaur, Francisko Etxeberriaren *Exhumando fosas... recuperando la dignidad* hitzaldia, 19:30ean, kultur etxean.
- **Villbona.** Mintzolak antolatutako *Ahoa bete* hotsjardunaldien barruan, gaur: 09:15ean Joxerra Garziaren *Ahaz idatzi, eskuz hitz egin*; 10:20ean Itsaso Arrietarekin *Herri kantuen interpretazioa. Ahozko tradizioaren atzetik*; 11:50ean saio praktikoa Ana Elorzaren gidaritzapean: *Ahokotasuna-kantagintza: ariketa praktikoa*; 12:10ean *Eskuz esku bertsotan* saio praktikoa Uxue Alberdi eta Iker Zubeldiarekin; eta 12:30ean mahai ingurua: Joxerra Garzia, Itsaso Arrieta, Ana Elorza, Uxue Alberdi eta Iker Zubeldiarekin.
- **Tolosa.** *Pello Lizardira!* Ileppean elkarretaratzea egingo dute gaur, 19:30ean Triangulotan, Tolosako Pello Odriozola euskal presoaren askatasuna eskatzeko.
- **Tolosa.** Gure Kaiola elkartearen erosi daitezke Babarrun Astearen barruan azaroaren 20an egingo duten bazkarirako txartelak. 19:00etatik 21:00etara egongo dira salgai, eta telefono zenbaki bat ere jarri dute: 607 672 709. Zenbakira ere 19:00etatik 21:00etara deitezke eskatu dute.

**JUBILATUEK BEREN EGUNA OSPATU DUTE**

Altzoko Udalak Jubilatuek Eguna antolatzen duen pasa den iganderako. Altzotar ugari bildu ziren eta udalaren hitzetan «oso ongi» ateraz gertatu. Eguerdian hasi zuten eguna meza nagusiarekin, ondoren Altzo Artea dantza taldekoek emanaldia eskaini zuten, eta on-

doren bazkaltzera joan ziren. Mañukorta eta Zeberio bertsolariek eta Ane eta Olatz trikitilariak alaitu zuten bazkalostea. Jubilatuek baino lehen, hala ere, gaztetxo txanda izan zen. Izan ere, bezperan Potxin eta Patxin pailazoaren emanaldia izan zen frontoian. HITZA

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Santa Maria, 1. Nafarroa etorbidea, 2. Telefonoa: 943 65 46 10.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

**Agurrak**

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
tolosaldean@hitza.info

**agurrak**

**PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK**

P-5008

**TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA**  
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com